

Aretxabaleta,
1993ko irailak 2

Aretxagazeta



BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.
ARETXABALETA

Herriko jaixak Andramaixak



Marrazki lehiaketa


Arratsaldeko 4retan umeez jaiet hasiera marrazki lehiaketarekin eman zioten. Jaiak hasiaz bat euri zaparrada ere izan genuen, baina eskerrak ez zuela luze iraun eta Andramaixetako beste egun guztietan egun zoragarriak izan genituen, bero handiegia ere bai.

Ume guztiak Iturrigorri frontoian elkartu ziren euren marrazkia egiteko asmotan.

Adin desberdinetako umeez hartu zuten par-

te, 3 urtetik 14 urte birtartekoak. Bakoitzak behar zituen tresnak hartu ondoren hasi ziren euren lantxoak egiten, gaia libreza zen. Ordu betearen bukatu zuten eta ondoren sariak banatu ziren plazan.

Partaide guztiak jaso zuten saria, urte desberdin bakoitzean irabazle bat egon arren. Argazkian ikusten denez, denak pozik geratu ziren jaso zuten sariarekin eta mezezi izan zuten egin zuten lanak.



Arratsalde guztia musean

Bezpera egunean mus txapelketak ere izan zuten bere lekua. XV. Mus Txapelketa jokatu zen. Guztira 64 bikotek parte hartu zuten.

Bai helduek eta baita gazteek ere 3 ordu luze iraun zuten norgehiagokan euren trebetasunak erakusteko aukera izan zuten.

Orduak pasatu ahala partaideak eliminatuaz joan ziren bikote biren aurrez aurre geratu arte:

Arana eta Patxi Boliña batetik, Igartua eta Etxandia bestetik. Laurak mahaiaren aurrean jarri, kontzentratu eta euren jakintasuna martxan jarri ondoren azkenean azkarrenak Arana eta Patxi Boliña izan genituen.

Beraz euren irabazleek kopa eta txapela. Bigarren postuarekin, barriz, "Txorik" eta "Pistonek" konformatu behar izan zuten, ez dago txarto, ez!



Zorionak, irabazleok!

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta - Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Jon Antxia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai, **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Itxaro Zubillaga eta Agurtzane Elkoro, **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, A. Galdaera, T. Aragones, R. Velasco, J.M. Torres, E. Vazquez, Beinke, Udala. **Inprimategia:** Eguzkigrif Koop.E. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.


Txupinazoa



• Udaletxe aurrean ikurrinari agurra egiteko dantzariak eta txalaparta izan genituen.



• Ondoren udaletxeko balkoira igo zuten eta alkateak bere azken diskurtsoa eskaini zien herritarrei. Ondoren Ikurrina ipini zen balkoian eta gero txupinazoa eta jaien hasiera ofiziala.



Bolo txapelketa

Gabean, Saltsamaltza taldearekin jendea plazan zegoen bitartean, 11,30ak aldera bolo txapelketa hasi zen, Iturri-gorriko bolalekuan.

Txapelketa 3 bolotara izan zen, azkenean hiru boloak botata gero eta desenpatea jokatu ondoren, irabazlea Alberto Etxeberria "Porru" izan

zen, bigarrena Aitor Aranzabal eta hirugarrena Ignazio Agirrebeña.

Jubilatuek ere euren aukera izan zuten txapelketa honetan. Lau jubilatuk parte hartu zuten eta azkenean irabazlea Jesus Peru izan zen, bigarrena Pedro Jose Etxeberria eta hirugarrena Valentin Etxeberria.

ARETXAGAZETAko
BAZKIDE izan gura
baduzu deitu:

☎ 79 01 05

Arratsaldeko
3retatik 7retara

HERRASTI
GOZODENDA

Durana Kalea

ARETXABALETA

G
E
M
E
S

EDERTZE
ARETOA

Durana, 40

Tfnoa: 79 99 18



Andra Mari Meza

12etan kanpai jotea-
rekin batera alkatea eta
zinegotziak udaletxetik
elizaruntz abiatu ziren,
txistulariek Alkate-soinua
joten zuten bitartean.
Udalbatza Atxabaltako
banderarekin elizara sar-
tu zen Andra Mari egu-
neko meza nagusia ent-
zuta.

Meza Aita Mikelek
eman zuen, Don Bitoria-
no Aranburu ordezkatzuz.

Eliza jendez beteta
zegoen eta korua ere en-
tzuteko aukera izan ge-
nuen bertan elkartu gi-
nen guztiok. Elizan ze-
goen jendeak gorai patu
egin zuen koruaren lana;
oso ondo kantatu zute-
lako.

Meza bukatzean,
Andramari eguna zela
eta jendea oso dotore
jantzita ikusten zen ka-
lean.

Betiko banda

Meza Nagusi aurre-
tik Zumaiaiko Bandak alai-
tu zituen gure kaleak,
pasakaile ederrekin.

Jendeak elizatik ur-
ten zuenean, Zumaiaiko
banda barrero gertu ze-
goen kontzertua emate-
ko. Bandak 5 pieza des-
berdin jo zituen: Hooten-
nay, On the trail, Orfeon
en los Infiernos, The Bea-

tles concert eta Moment
for Morricone.

Gustora entzun zu-
ten kontzertua han bil-
dutako guztiok eta inte-
res handiarekin entzun
zuten Zumaiaiko banda-
ren kontzertua.


Arratsaldean barrero
Zumaiaiko bandak eskai-
nitako dantzaldia ikuste-
ko aukera izan zen.



"HERRASTI"
AKEITA ETXEA



Aralar Kalea, 7
Tfnoa: 79 32 83



Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria

Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jatetxea!



Tfnoa: 71 46 08

GATZAGAN

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 79 07 94
79 31 87

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

JAUREGI
OKINDEGIA
(Panaderia)

Otalora, 10
Tfnoa: 79 57 47



• Goizean jendeak interes handiarekin jarraitu zuen Zumaiaiko Bandaren kontzertua argazkian ikusten denez, eta arratsaldean dantzan egitera ere animatu zen jendea.



Pelota partiduak

Andramari egunean 10,45etan Iturrigorri fontoian pelota partiduei hasiera eman zitzaien. Lehenengo partiduan Errasti anaiek eta Ortiz-Okiñona bikoteak jokatu zuten.

Jende ugari elkartu zen partiduak ikusteko eta asko animetan zituzten atxabaltarrak, baina hauek ezin izan zuten

partidua irabazi. 22-18 emaitzaz amaitu zen, Ortiz eta Okiñarenaren alde.


Ondoren bigarren partiduari eman zitzaion hasiera. Honetan Arbizu-Goñi eta Larramendi-Alonsok jokatu zuten. Hau ere aurrerekin emaitza berarekin bukatu zen, oraingo honetan Larra-mendi-Alonsoren alde.




Txikienezako parkea

Elizarako bidean zihon jendea plazan zaratatuz zirela konturatu zen. Bertan, herriko umeak, gurasoen laguntzarekin parkearekin gozatzeko aukera izan


zuten. Bertan, puzgari haundia, ohe elastikoak, motor pista, haurrentzako puzgaria eta pelotaren igerilekuarekin jolastu zuten herriko gazte txoenek.



BARRA ESTANKOAK



Tabakoa eta ikas materiala



Bizkaia, 3

Tfnoa: 79 23 77

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA

Elektrogailuak
Elektra-instalaketak

Otalora, 14

Tfnoa: 79 16 10



ZENBAKI
Aholkularitza

Basabe industrialdea
Aretxabaleta
Tfnoa: 79 88 75

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Juridikoa
Finantziaketa
Aseguruak

Biteri etorb. 15
Arrasate
Tfnoa: 77 12 39



Atxabaltako zerua argiz beteta

Pelota partidua bukatu ondoren hasi ziren suzko erruberak gabeko ordu batetan. Jendea nahiko aspertuta zegoen ordurako, noiz hasiko zain. Beharbada beranduegi hasi ziren suzko erruberak, pelota partiduak asko luzatu zirelako.

Baina azkenean, ordubatak inguruan lehenengo etxafleroa bota zen eta ondoren suzko erruberak hasi ziren.

Jende ugari elkartu zen Zubiako aparkalekue-tan, Piroteknia Zaragoz-anak bota zituen suzkoak ikusten.

Jendearen iritziz onak

izan ziren, baina batetik bestera nahiko denbora itxoin behar zen, azkarra goak izanez gero gehiago apreziatuko ziren.

Jendeak alde guztietatik ikusi ahal izan zuen, gehienak Zubiako aparkalekutik ikusi arren beste batzuek Urkuluko bideraino igo zuten suzkoak hobeto apreziatuko.

Suzkoak bukatu bezain laster, batzuk tabernetara joan ziren eta beste batzuk plazaraino gerturatu ziren Izadi taldearekin dantzan egiteko asmoz eta gabari jarrairain bat emanez.



Izadi taldearekin dantzan

Gau honetakoak izan zen talde bakarra besteetan trikitalariak edo bikoteak izan ziren. Taldea nahiko ona izan arren ez zuen jende larregi elkartu. Oso jende gutxi egon zen plaza inguruan gabeen dantzan, gehienak gaztetxoak ziren,

helduak pelota partidu bukaeran gerturatu ziren plazara. Jendea dantzaldi horietan gehiago parte hartzera animatu beharke litzateke, ohitura hori, poliki-poliki galduaz doala ikusten da eta. Ea datorren urterako animetan garen.



Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16


Tfnoa: 79 01 72



Loradenda

Otalora, 14 behea

Tfnoa: 79 70 66



EGUZBIGRAF
INPRIMATEGIA

Aldizkariak

Inpresoak

Bulegoko materialak


Basabe poligonoa, A-2-7 Tfnoak 79 29 41 eta 79 18 44



• Lan egiteko postura ona daukate hauek. Artista onak ez dakit, baina ondo pasatu zutela seguru.



• Bisitari kanpotarrak ere izan genituen jaietan. Lapurretak ere izan zituzten Azatzako etxean, baina hala ere gabero kalean ibiltzen ziren juer-gan.



• Begira ze harrapatu genuen! Bandako kide bat loak hartuta, bateronbati susto ederra eman zion.



• Aupa Konsuelo, gizonari gerritik heldu eta dantzan hankak mindu arte, Andramaixak horretarako dira eta.



NOVEDADES

FELI

MODAN DAGOEN GUZTIA

Iparragirre, 4

Tfno: 79 21 24

ARETXABALETA



**INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK
URKULU, S.A**

Mitarte, 23

Tfnoa: 79 96 66

OSKAR

HARAGITEGIA

Loramendi, 1

☎ 79 71 69


ARETXABALETA

ANGELINES
Autozerbitzua



Mitarte, 16

Tfnoa: 79 61 42



Herri kiroletoako aurkezlea ondo zaindu zuen Udaleko bizkarzainak, norgehiagokak irau zuen momentu guztian.



Presoak ere gogoan izan ziren Andramaixetan.



Zelako lana duen txahalak! Gizon gixajuak inon direnak egin zituen txahal gozo, eder eta dastagarria prestatzeko. Lurrean etzan, zutitu...denetik.



Herri bazkarian umorea ez zen falta izan, bestela galdetu Kepari.

SEAT

Audi VW

**GARAGE
OSKAR**

Basabe poligonoa
A - 2 - 4
Tfnoa: 79 98 74

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 31 84

Mobiliario **ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

ARENAZA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 - ARETXABALETA

Urlatik

1993ko irailak 2

• Gatzagako berriak •

1. zenb.



**Iritsi dira
jaiak!**

IGOR ABASOLO

"Pagedar" Gatzagako euskeraren aldeko taldea

Martxoan Gatzagan euskeraren aldeko taldea sortu zen. Ordutik aurrera hainbat bilera egin dira eta azkenean bertso afari baten "Pagedar" izena hautatu zen taldearentzat. Talde honen berri jakin guran bertako lehendakaria den Igor Abasolokin izan gara.



• Nola sortu zen Leintz-Gatzagan euskeraren aldeko talde bat egiteko ideia?

• Gatzagako herriak betidanik izan duen nortasun euskalduna euskararen presentzian oinarritu da eta azkenengo urteetan Gatzagan, euskarak jasan duen bilakaera kaxkarra kezkatuta, herriar batzuk euskararen normalizaziorako zeozer egin behar zela ikusten genuen. Horrela inguruko beste herrietako esperientziak ezagutzeko, bilera batetarako deialdia zabaldu genuen herrian. Bilera horretan J. I. Izarzelaiak egindako azalpenaren ondoren, arazoari konponbidea bilatzeko eta euskeraren normalizazioa lortzeko lana egingo duen talde bat osatzea erabaki zen.

• Zenbat lagunek osatzen duzue taldea eta zeintzuk dira taldearen helburuak?

• Dozena bat lagun aritzen gara taldetxoan, dena den, taldea irekia dago parte hartu nahi duen edozeinentzat, euskara maitatzea eta bere normalizaziorako lana egiteko prest egotea da eskatzen dan gauza bakarra, hau baita taldearen helbururik nagusia.

• Zer egin behar duzue Gatzaga euskalduntzeko?

• Hori bai galdera!. Ez da bapatean lortu daitekeen gauzia, duda barik pixkanaka, egunero aurrerapausuak emanda, gainditzeko helmuga dugu. Hasteko denon kontzientzia ikutu behar dugu eta norberak ahalegin bat egin behar du euskeraz aritzeko, motibazio eta kontzientziazio

gabe ez dago zer eginik. Taldea, herrian euskal guneak bultzatzen eta indartzen ahaleginduko da, eta horretarako hainbat ekintza burutzeko asmoa dugu.

• "Pagedar", izen jator bat taldearentzat

• Bai, hasieran izen ezberdina proposatu ziren, denak Gatzagako herriaren toponimiaz zirikusi handia zutelarik, azkenean bertso afarian bildutakoek "Pagedar" izena hautatu genuen taldearentzat.

• Taldea martxotik dago martxan, zer egin duzue orain arte?

• Taldea osatzeko prozesuan bi idatzi kaleratu ziren, eta ondoren zortzi bilera egin dira. Gero, taldearen aurkezpena egiteko bertso-kantu afari bat antolatu genuen maiatzaren 22an, bertan 60 gatzagatar bildu ginelarik. Herri Urratsera ere autobus bat antolatu genuen eta Korrikan aktiboki parte hartu dugu. Orain "Urlatik" izenarekin aldizkari hau kaleratzea eta hilerro, ahal den era atsegina goan, herriko berriak ematea nahi dugu. Desafio izugarria da, baina gatzagatarren laguntzaz aurrera iritetzea espero dugu, beraz badakizue, bialdu zuen gutunak eta idatziak. Anima zaitzte, Pagedar Taldea irekia duzue,

Pago nahiz pinuen gerizpean euskaraz egin etengabe

▼ Urlatik ▼

Argitaratzailea: Pagedar Elkartea Kultur etxea, Gatzaga.
Inprimategia: Eguzkigrafi, Coop. E. **Tirada:** 600 ale.
 Urlatik paper Birziklatuan egiten da.



Gatzagako jaixetan, ondo pasau Andramaixak

Dena prest dago herriko jai nagusia ospatzeko. Urtero bezala, abuztuko oporren ostean, gure herria elkargunea bihurtzen da jai alaitsuetaz gozatzeko.

Dagoeneko Udalak kaleratu du jai egitaraua, bertan jai batzordeak prestatutako ekintzen berri ematen delarik. Jaiak hilaren 8an hasiko dira ekintza des-

berdinekin: Trikitixak Zabale anaiekin, Mesa Santua..., ondoren irailaren 10ean astebukaerari hasiera emanez etxalferua eta afari merienda eta gauean rock kontzertua Heriotza eta Urtz taldeekin, irailak 11an sokamuturra, herri bazkaria eta gauean Izadi taldearekin dantzaldia egongo da eta irailak 12 an jaiiei bukaera emateko, 11,30etan Laja eta Landakandarekin trikitixa, 12etan meza Santua, ordu 1etan Arrasateko Arrostitz dantza taldearekin saioa, 7retan bertsolariak: Peñagarikano, Enbeita eta Solozabal eta gaueko 10etan Kaixo taldearekin dantzaldia.

Gatzagako jaiak duten fama baieztatuz inguruko jende ugari etortzea espero da, eta ohitura zaharrak jarraituz ez dira faltako otxandiotarrak ere, denontzako gure ongietorria, ONDOPASAU ANDRAMAIXAK.

"Pagedar", Gatzagako euskeraren aldeko taldearen aurkezpena

Bertso afari bat antolatuz aurkeztu zen maiatzak 22an "PAGEDAR TALDEA". Talde honen helburua Gatzagan euskaren erabilera normalizatzea da. Antolatzaileen aurreikusmen guztiak apurtuz, 62 pertsona bildu ziren Zuhaitz tabernan taldearen aurkezpena ospatzeko.

Afari bukaeran J.I. Izarzelai, Saioa Arando eta Ainhoa Agirreazaldegi bertsolari famatuak aritu ziren; Kruz Azkoagak ere erakutsi zuen oraindik ere sasoian dagoela.

Bukatzeko Kintanilla eta Urbinako alkateak alaituta dantzaldi herrikoa ospatu zen goizalderarte Malkorre enparantzan.



Ez da makal talde honek aurrean duen egiteko lana, baina

sorte ona eta etorkizun hobea goa opa diogu. ZORIONAK.



Jon Sasiain eta Gurutze Orbegozo pasa den maiatarren 22an ezkondu ziren Dorletan. Zorionak!

Kamisetak salgai

Jaiak direla eta Pagedar Taldeak kamisetak jarri ditu salgai. Aurrean, Pagedar Taldearen anagrama inprimatu dute eta bizkarrean herriko leku ezagun baten marrazkia. Kamiseta zuria da eta marrazkiak Gatzagako kolorean, hau da granatea.

Kamisetak 1.000 pztatan salgai daude herriko tabernetan edo eta Pagedar Taldeko egoitzan (Kultur Etxean).



GURE AMETSA JATETXEA

Ezkontza, euskal sukaldea,
entrepesetako afariak

Tfnoa: 71 49 52

Leintz Gatzaga

Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jatetxea!



GATZAGAN

GATZA GAIN

JATETXEA

Bertako janari
tipikoetan
espezializatua

Tfnoa: 71 50 77

ARRATE

Taberna


*Menestra, bakailu eta txuletoian
bereiztuak, Etxeko postre gozoak.*

☎ 71 43 71


LEINTZ GATZAGA




Alkateak egin zuen bere azkeneko paseotxo, Alkate-soinu eta bastoiarekin.



Begira zela gelditu zen bazkal ostean frontoia. Nahiko izerdi botako zuten antolatzaileek dena jaso eta garbitzen.



Txilibreren gidaritzapean, Jurgi atzetiik eta Lore abesten, dantza ederrak bota zituen taldetxo honek.



Felipe Arrese putz eta putz lehertu arte.

I O S U
URDAITEGIA

MITARTE, 1


ZARAIA TABERNA

GOIZEKO 5,30etatik
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA
ANAIK

LEIBAR

ARRAINDEGIA



Mitarte kalea, 1 - Tfnoa. 77 13 79
ARETXABALETA



Leintz Bailarako 55. Itzulia

Bigarren egunean, txirrindularitza lasterketarekin esnatu zen herria. Lehenengo eta bigarren mailako afizionatuentzat Leintz Bailarako 55. itzulia zegoen jokoan. Aurten denon harridurarako helmuga udaletxe aurrean kokatu zen, Durana kalearen egoera txarra dela eta.

Goizeko 9etan hasi zen frogua. Guztira 137 txirrindularik parte hartu zuten 113 kilometroko ibilbideari aurre egiteko asmoz. Hasieran tropel osoa batuta agertu bazen ere, gutxinaka hainbat txirrindularik ihesari ekin zioten. ACR, MCA eta Branik taldeko txirrindulariek hasierako

postuak eskuratzen hasi ziren. Gauzak honela azkenean sprint baten ondoren Imanol Galarraga izan genuen irabazlea 2 ordu 50' 57" denbora eginez. Bigarren postua denbora berarekin J.M Galdos heldu zen eta hirugarrenean E. Manchon 52' 25 "tara. Mendiko saria Imanol Galarragarentzat izan zen, beraz frogua irabazi eta mendiko saria jaso zuen ACR, MCA taldeko txirrindulari gazte honek.

Taldekakosarian Branik taldea izan genuen indartsuena eta bigarren mailako lehen afizionatuaren saria Kaiku taldeko Iñigo Chaurrean-ek jaso zuen.



Herri kirolak

Txirrindulari froga bukatuaz bat, Herri kirolen txanda etorri zen.

Aurten aizkolari eta harri jasotzaileen ordez, herri kirolen munduko beste modalitate batzuk ikusteko aukera izan genuen atxabaltarrok.

Herriko plazan ia ordu bi iraun zuen ikus-kizunean, besteak beste idi proba, gizon proba, orga jokua eta lasto altxaketa izan genituen protagonista. Plazan bildutako jendea oso gustora gelditu zen.



• Arratsaldean, Incansables txarangarekin jendeak dantzari egiteko aukera ezin hobea izan zuen.

**IZOTZ
TABERNA**

Mitarte, 16
Tfnoa: 79 01 72

**EXPRESS
AKEITEGIA**

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

**HAIZEA
AKEITEGIA**



Mitarte Kalea, Z/G
Tfnoa: 79 85 57



• Arratsaldea ondo hasteko, zezenen bisita izan genuen. Txikiak baina biziak, bestela galdetu golperen bat jaso zutenei!



Plazara begira

Gabean Laja eta Landakanda trikitilariak euren emanaldia Durana kalera begira hasi zuten, baina jendea plazan dantzan ikusi zutenean, trastuak hartu, buelta eman eta saioarekin jarraitu zuten.

Benetan ikasteko ikasgaia eman zuten herritarrek, boikota eginez Durana kaleari eta datorren urterako Udalekoek hobeto pentsatu beharko dute non jarri dantza. Erreflexionetako gaia.

Finalak

Gabeko 10,45 ziren, Iturrigorri frontoia leporaino beteta.

Horrela bada, lehen neurketan Arbizu Sanberoitx bikotea eta Errasti anaiez osaturiko beste bikoteak kantxaratu ziren. Emozioa ez zen falta izan, datu moduan 10. tantuan berdinduta egon zirela. Baina une horretan Arbizu eta Sanberoitx bikoteak bai atzean eta baita aurrean ere, euren legea ezarriaz joan ziren. Horrela tantu bat bestearen atzetik eginez aldea handitzea lortu zuten, Atxabaltako anaiek gura bai, ahaleginak egin ere, baina azkenean 22 eta 13 galdu zuten.

Bigarren partiduan beste bikote bi eta ez zela halakoak. Larramendi eta Olano batetik, Ortiz eta Okiñena bestetik. Hasiarako tantuetan berdintasuna nagusi baina partidua aurrera zihoan bitartean Larramendik eta Olanok ondo aprobetxatzen jakin zuten Ortiz eta Okiñenaren akatsak 22 eta 16 emaitzara heldu arte. Partidu polita izan zen.

• Aurreko egunean moduan, bigarren egun honetan ere umeez eta hain umeez ez zirenak ere, euren aukera izan zuten plazako parkean. Bertan, puzgarri handi bat, zezen mekanikoa, puzgarri txikia eta monopatinen pista zegoen.

• Batzuk dantzan edo juergan zebiltzan bitartean, Herri Bazkaria antolatzen duen taldea txahala erreten hasi zen. Taldea gau guztian bertan egon zen, eta hurrengo egunean oraindik lan gehiago zeukaten.

PAGALDAY

**Opariak
eta
Lurrindegia**

Durana, 33
Tfnoa: 79 10 14

IMANOL ALTUBE

**ELEKTRA
INSTALAKUNTZAK**

Durana, 36
Tfnoa: 79 10 60



GARAGE NORTE, S.L

OPEL AGENTZIA OFIZIALA

Basabe pasealekua - A-13 - Tfnoa: 79 62 65

Hirugarren eguneko giroa azaltzeko argazkiek berbek baino askoz gehiago esaten dute:



• Zezena ere egarriak zegoen azkenengo egunean, eta zein leku hobea soziedadea baino? Barruan zeudenek susto ederra hartu zuten. Baina ez bakarrik barruan zeudenek, bestela galdetu Madinari eta Aranari, Atxabaltako arraunlari ausartei.



• Gau guztia lana egin ondoren, 2,30etarako prest zegoen dena. Jendearen gosea besterik ez zen falta 200 kg-ko txahala hazurretan uzteko.



• Aurten hirugarren egunean, nobedadeen artean Kukubiltxo taldea izan genuen, Atxabaltako bat tartean zegoen, zein ote zen?



• 200 lagun inguru elkartu ziren Iturrigorri frontoian. Bero egin arren gosea ez zen falta. Tripa ondo beteteko aukera izan zuen jendeak, batek baino gehiagok errepikatu egin zuen.

**MATIKUA
TABERNA**

Azatza auzoan
☎ 79 16 68
ARETXABALETA

**DORLETA
TABERNA**

Loramendi, 10
☎ 79 94 15

**LASA AGUILERA
AHOLKULARITZA**

Andra Mari Auzunea
Tfnoa: 79 29 26

ARETXABALETA

MZ MASAILARIAK

MASAIK ZARAIA

MASAIK eta
OSTEOPATIA
Loramendi 13 - 1-A
Tfnoa: 79 71 55



• Bazkari Herrikoian, umorea ez zen falta. Antolatzaileek konfetiak eta sonbrerotxoak banatu zituzten eta ondoren ederra sortu zen. Turuta hotsak eta konfetiak frontoi guztian zabaldu ziren.



• Ohitura denez, arratsaldean buruhandiek irten zuten. Batek baino gehiagok txarto pasatu zuten.



• Bero desberdinen ondorioz, urak ere bere protagonismoa izan zuen. Bat baino gehiago etxera joan behar izan zen erropa berriak jastera.

Iturrigorri frontoian euria zela zirudien momentu baten.



• Giroa bazter guztietan zegoen.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



• Afalordua heldu zenean, urteroko ohiturari jarraituz, jende multzotxoak elkartu zen Gurea pareko mailetan. Albaro gustora egongo zen, horrenbeste bokadilo saldu eta gero.



• Aurtengo beste nobedade bat, bitsa izan zen. Umeek eta hain umeak ez zirenek ere, ondo pasatu zuten.



• Andramaixetako azken dantza, txokolateroa.

AZKEN BERRIAK



Andraimaixak alde batera utzita, azkenean heldu zen berria. Abuztuak 24ean goizeko 7.30etan K2ra joandako espediziokoek deitu zuten. Ez ei dute gailurra lortu, 500 metrotara gelditu dira, 8.100 metrotan. Baina dena dela guztiak ondo daude eta hori da garrantzitsuena. Gazteak dira eta gaur ez badute lortu beste batean lortuko dute. Zorionak eta irailak 4era arte.

**MITARTE
GARAI
(JATETXEA)**

ARIENTZAN
Tfnoa: 79 17 51



IMANOL ARRAZOLA
KLINIKA DENTALA

Otalora, 18 - 1.º D
Tfnoa: 79 93 55



MAPFRE
Aseguroak
Angel Zubillaga
Aseguruen ordezkaria

Errekabarren, 3 20550 ARETXABALETA
Tfnoa: 77 11 76

A- Zer daukazu esateko Andramaixen gainean?

B- Zer moduz suzko erruberak?



**Joseba Urzelai
(Ikaslea)**

A.- Jaiak oso ondo, bikainak. Aurtengoak bezelako jaiak sekula ere ez.

B.- Suak motelak, la-regi iraun zuten.



**Maite Ortiz de Zarate
(Langilea)**

A.- Jaiak oso ondo, ederto.

B.- Suak iazkoak baino askoz hobek, oso ondo egon ziren.



**Xabier Zabala
(Langilea)**

A.- Jaiak ederrak. Jaietan norberak jarri behar du bere ambientea.

B.- Nahiko exkasak.



**Jokin Bengoa
(Ikaslea)**

A.- Nik urtero ondo pasetan dut. Beti egoten da egun bat motelagoa, baina urtero moduan.

B.- Suak entzun diren komentarioengatik, aurrekoak baino hobek.



**Kepa Errasti
(Langilea)**

A.- Ondo, nahiz eta lagunek apur bat huts egin. Onenak zizenak, nahiz eta mantsoak izan.

B.- Nik ez nituen ikusi.



**Lurdes Zubillaga
(Langilea)**

A.- Zizenak asko luzatzen dira. Gabeko musikan, trikitilariak ez dute girorik sortzen jende gaztearen artean.

B.- Suak ondo.



**M. Carmen Gutierrez
(Langilea)**

A.- Bueno, ondo egon dira, giro majoa egon da. Gainera jendea egon da.

B.- Suzko erruberak oso politak izan ziren.



**Izaskun Lezeta
(Ikaslea)**

A.- Jaiak oso ondo daude, gustora ibili naiz.

B.- Suak politak izan ziren.

ARLUTZ

TABERNA

Mitarte, 16 ARETXABALETA Tfnoa: 79 32 34



Mitarte, 21 behea

Tfnoa: 79 79 79

ARETXABALETA



TXIMAK

ILEAPAINDEGI MIXTOA



(BERRIRO ZUEKIN)

Herriko plaza, 5- behea
Tfnoa: 79 83 64

ARETXABALETAKO